

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Bake epaile ordezkoaren kargua betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile ordezkoaren kargua lau urtez beteko duen pertsona izendatzeko proposamena egingo diola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari.

Legeak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete behar dira prozeduran parte hartzeko:

- Adinez nagusia izatea.
- Espainiako naziotasuna izatea.
- Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 3eta 389tik 397ra arteko artikulua eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Izendapen horretan interesa dutenek udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera; horretarako, hogeit hamar egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia.
2. Errolda ziurtagiria.
3. Zigor aurrekarien ziurtagiria.
4. Zinpeko adierazpena, honako hauen gainean:
 - a) Ez dela egon dolozko delituagatik zigortuta egon edo, hala badagokio, birgaitze onura jaso duela.
 - b) Ez dagoela doluzko delituagatik prozesatuta edo inputatuta.
 - c) Eskubide zibil guztien jabe dela.
 - d) Ez dagoela fisikoki edo psikikoki ezindurik epaile eginkizunetarako.
 - e) Ez dagoela Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan xedatutako ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2025eko otsailaren 12a

Alkate-lehendakaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA